

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Mari Uribarren Leturiaga
Aramaio, Araba
(1938)

Aurkibidea



Biografia



Etxaguen auzoko Uribarrenbekoa baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Bizkaiko Atxondo herriko Arrazola elizateko Goikoane baserrikoa zen. Bederatzi anai-arrebatatik bosgarrena izan zen Juan Mari. Auzoko Abatetxean hasi zen eskolan, eta zazpi urterekin auzoan eraiki zuten eskola berrira pasatu zen, Pilar Montorio maistra zelarik. Hamalau urte arte eskolaratu zen. Baso lanetan asko jardundakoa da, baina bizi guztia eman du baserrian. Gaztaina sasoian gaztaina salmentan aritzen ziren, baina baserriko jarduera nagusia esne-behiarena izan zen. Lana Kooperatibaren sorreran parte hartu zuen Juan Marik. Azkoaga auzoko Urugu baserriko Maria Jesus Asperekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARA-088

- **Proiektua:** Aramaioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-12-04
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Abadea eta "amadekasa" irakasle

- **Erref:** ARA-088/002
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Auzoko eskolan ibili zen. Lehenengo maisua auzoko abadea izan zen, Don Antonio Ariztimuño, eta harekin abade-etxean batez ere dotrina ikasten zuten

. Abadearen "amadekasak" ere irakasten zion eskola. Juan Marik zazpi urte zituela eraiki zuten eskola berria.

2. Maistra baserrian apopilo

- **Erref:** ARA-088/003
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Auzoko-eskolak bukatu zirenean, eskola-etxea auzotarrek erabiltzen zuten elkartzeko gun e bezala. Eskolan neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Juan Mariren arreba bat bertako maistra baten nebarekin ezkondu zen. Gau-eskolak ere maistra berak emanda jaso zituen, maistra hori Juan Mariren etxean apopilo egon zen bitartean.

3. Esnea kalera astoan

- **Erref:** ARA-088/004
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>14 urtera arte ibili zen eskolan. Eskolara joan aurretik esnea eramaten zuen kalera, Manzano-ren biltegira. Honek gero Arrasaten saltzen zuen esne hori.</p>

4. Lurrezko pitxarrak

- **Erref:** ARA-088/005
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Aramaioko kaletarrak Manzano-ren biltegira joaten ziren pitxarrarekin esne bila. Mutikotan gogoratzen du lurrezko pitxarrarekin gari lanetan sorora ura eramaten; baita pitxarra puskatuz gero jasotzen zituen errietak ere. Egunean hamar bat azunbre jaisten zituen kalera. Udan eta neguan ez zuten esne kantitate bera izaten.

5. Karretero lanetan

- **Erref:** ARA-088/006
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Hamar bat behi eta idi pareak izaten zituzten kortan. Aita eta anaia zaharra karretero lanetan ibiltzen ziren etxeko idiekin. Etxean gari lanak bukatu eta garo-biltzeko garia heldu bitartean ikatza egiten zuten. Kaleko okindegirako laberako egurra gurdietan eramaten zuten. Okina oñatiarra zen.

6. Bildotsak azerien truke

- **Erref:** ARA-088/007
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:20:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Okindegirako egurra garraiatu zuten harik eta labe elektrikoa jarri zuten arte. Aita ehiztari handia omen zen, eta artzainekin tratu haxe egin omen zuen, azeriak sortzen ziren arazoak konpontze aldera: berak azeriak harrapatzeagatik, artzain bakoitzak urtean bildots bat emango zion. 37 azeri harrapatutako urteak izan ziren. Bizkaiko Arrazolan ere tratu bera zuen. Tiroz edo zepoekin akabatzen zituen azeriok.</p>

7. Azeriak harrapatzen aitarekin

- **Erref:** ARA-088/008
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:21:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Mutikotan Juan Mari aitarekin joaten zen azeritara. Berak txakurrarekin azeriak uxatu eta aita akabatzen zituen. Juan Marik etxafuegoa botatzen zuen txakurra askatzen zuenean, aita jakin zezan.

8. Azeri-txakurren lana

- **Erref:** ARA-088/010

- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:22:43. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Azeriak nola uxatzen zituen azaltzen du. Txakurra azeri edo erbiaren atzetik zihoanean aita zaunka-hotsean igartzen zion. Juan Marik ere ikasi zuen txakurren "hizketa" hori. Urte batean 40 bildots jaso zituen aita azeriak harrapatzearen truke. Elorrio, Arrazola, Urkiola eta Aramaioko mendietan ibiltzen ziren azeritan urte osoan. Artzainek hala eskatu eta sinatuta, aita ehiza denboratik kanpo azeriak harrapatzeko baimena lortu zuen gobernadorearengandik. Urte batean 37 azeri hil zituzten.

9. Astoa oso baliagarria zen. Errazionamenduko tabakoa

- **Erref:** ARA-088/012
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:27:07. **Bukatu:** 00:30:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lurra bustia zegoenean idien apatxek eta gurdien txirriek bideak hondatzen zituzten. Halakoetan astoa erabiltzen zuten ganadu-jatekoak ekartzeko. Urte txarretan lastoa kanpotik ekartzen zuten ganaduari emateko. Arto-baba sail handiak izaten zituzten. Gaztaina eta esnea ere beti izaten zituzten eta jateko zerbait beti izaten zuten etxean. Errazionamendu garaiko aitaren tabakoarekin gogoratzen da. Erretzen ez zutenei garraio lanak egiten zizkien, euren tabakoaren truke.

10. Familia zabala

- **Erref:** ARA-088/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:30:13. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Aita txerri-hiltzen ibiltzen zen etxetik etxe. Juan Mari bederatzi anai-arrebatatik bosgarrena izan zen. Etxekoak hamabi ziren eta izekoren bat ere beti egoten zen etxean amari laguntzen.

11. Egurra eta ikatza basotik

- **Erref:** ARA-088/014
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:32:33. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Basoan lan asko egiten zuten, aizkora eta trontza-zerrarekin. Sutarako egurra eta ikatza prestatzen zuten etxeko basoetan. Eskolako eguerdiko atsedenean joaten zen Juan Mari basora lanean zeudenei lapikoa eraman eta eurekin bazkaltzera.

12. Gerraosteko beharrak

- **Erref:** ARA-088/015
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:36:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gerraostean aita sarritan ikusi zuen beharra zutenei laguntzen. Gaztainadi handiak zituzten eta gaztainak saltzen zituzten. Kiloa pezeta bian saltzen zutela gogoratzen du. Txatxurreneko Floren joaten zen Gasteizera gaztainok saltzera.

13. Baserrian esne-behiak jarri zituzten; Lana kooperatiba

- **Erref:** ARA-088/016
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:38:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Juan Marik ez du inoiz baserritik kanpo lanik egin. Etxera arteko pista berria egin zutenean esne-behiak jarri zituzten Uribarrenbekoa baserrian. Esnea Lana kooperatibak eramaten zuen. Idiak kendu eta traktore txiki bat ekarri zuten. Lana kooperatibako Zuzendaritza Batzordean urte askotan aritu zen Juan Mari.</p>

14. Baserria esne-behi granja bihurtuta

- **Erref:** ARA-088/018

- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:41:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lana kooperatiban sartu zenean, korta osoa berritu zuen, azken aurrerapenak jarritz. Ordurako berrogei behi bazituen baserrian. Etxeko soro gehienak zelai bihurtu zituen. Artoa babarrunentzako makila baino parra hobea dela dio, bero handitan gerizpe ona ematen baitio.

15. Erromeriak baino ehiza nahiago; behi gazta

- **Erref:** ARA-088/019
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:41:42. **Bukatu:** 00:43:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriak igandetan izaten ziren, baina batzuetan ehizara joatea nahiago izaten zuen. Ostiral eta zapatu ilunkara batzuetan, ordea, jaisten zen kalera, partidatxoa jokatzera. Otxandioko azokara joaten ziren gaztainak saltzera. Udar amak gazta egiten zuen soberan zuten behi-esnearekin.

16. Oilagorrek eta okela zubipean kontserban

- **Erref:** ARA-088/020
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:43:54. **Bukatu:** 00:49:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arrasaten hilean birritan izaten zen ganadu feria. ISO motor bat eduki zuen, eta gero kotxea. Motorrarekin txakurrak atoiari eramaten zituen ehizara. Oilagor asko harrapatzen zituen, eta gordetzeko aitzak errekako zubipean jarritako egur batetik esekitzen zituzten tripak atera eta gero, baina lumatu gabe. Hilabete ondo irauten zuten oilagorrok zubipean. Ahuntz okela ere era berean gordetzen zuten.

17. Guardia Zibilen mantenua baserritarren ardura

- **Erref:** ARA-088/022
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:49:39. **Bukatu:** 00:53:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Gogoan du gerraostean nola entregatu izan zuten gurdikada garia herriko Kontzejupean, eta gero etxean jateko garia Arabatik estraperloan ekarri beharra. Artorik ez, baina babarrunak ere entregatzen zituzten. Guardia Zibilentzako esnea txandaka eraman behar izaten zuten auzorik auzo. Txapelokerrek beste bezeroak baino gutxiago ordaintzen zuten. Herriko baserriarrek auzolanean prestatzen zuten txapelokerrentzako sutarako egurra.

18. Garia ehotzeko tranpak

- **Erref:** ARA-088/023
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:53:02. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errotak prezintatuta egon zirenean, aitzak Gasteizen lortu zituen prezinto berriak, eta hala gauzez ehotzen zuen beharrezko artoa eta garia. Txapelokerrekin ere ondo konpontzen zen, beti ere ardo tragoxka eta mokadutxoren bat etxean emanda.

19. Auzoko bide eta bestelakoen konponketak auzolanean

- **Erref:** ARA-088/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:59:04. **Bukatu:** 01:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gurdiak hondatutako auzo eta basabideak auzolanean konpontzen ziren urtero. Udalak kuartilu bat ardo ematen zuen eguneko eta langileko. Elizetako erreteila eta eskoletako inguruak ere auzolanean konpontzen ziren.</p>

20. Latorrizko ontziak; eztia iragazteko galtzerdiak

- **Erref:** ARA-088/026
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:01:36. **Bukatu:** 01:05:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Azunbreak lau kuartilu zituen. Latorrizko azunbre-ontzia gogoan du Juan Marik. Latorria herdoildu egiten zen, eta azukrea eta horrelakoak aluminiozko

ontzietan gordetzen zituzten. Aita erlezaina zen eta etxerako ezta izaten zuten. Akazia eta arbi loretan asko ibiltzen ziren erleak. Emakume galtzerdi finetan iragazten zuten ezta.</p>

21. Argizaria, distira ateratzeko

- **Erref:** ARA-088/028
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:05:56. **Bukatu:** 01:06:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Argizariarekin etxeko gaztaina-ohol zoruak leundu eta kandelak ere egiten zituzten. Bere arreba biek zoruari distira nola ateratzen zioten gogoratzen du.

22. Azeriekin etxerik etxe; zekorrak estraperloan

- **Erref:** ARA-088/030
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:06:43. **Bukatu:** 01:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Azeriak harrapatzen zituztenetan, etxerik etxe joaten ziren gero azeriok erakusten eta ematen zieten batzen. Aitak kontatu zion azkonarrak neguan hiru bat hilabetea euren zulutik irten barik egoten zirela. Udazkenean kalte handiak egiten omen zituzten azkonarrok. Zekorrak estraperloan eramaten zituzten Otxandioko harakin batentzako, eta honek, ez deklaratzearren, kortan hiltzen zituen, gero bere tabernan saltzeko.

23. Bizkaira bildotsak estraperloan

- **Erref:** ARA-088/031
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:10:08. **Bukatu:** 01:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Oleta auzoko artzain bat urte askoan egon zen Uribarrenbekoan. Bildotsak Durangora eramateko basoz joaten zen, probintzia batetik bestera pasatzeko zerga ez ordaintzearren. Norbaitek salatu egin omen zuen, eta behin guardia zibilak saihesteko lanak izan zituen.

24. Katiuskak aurrerapen itzela

- **Erref:** ARA-088/032

- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:12:23. **Bukatu:** 01:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Neguan abarka edo larruzko oinetakoekin ibiltzea gogorra izaten zen, eta txirukak (katiuskak) agertu zirenean aurrerapen handia izan zen. Etxean jatekorik ez zuten inoiz falta izan, nahiz eta batzuetan ogiarekin larri samar ibiltzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com